

EUSKARAK ALDAKETA BEHAR DU!



**EUSKAL ESTATUA
EZKERRETIK ERAIKIZ**

EUSKARAK ALDAKETA BEHAR DU

Euskal Herriarekin batera euskarak garai erabakigarrian aurkitzen da. Euskarak ere aldaketa garaia bizi du. Aldaketa hau norabide egokian emango dela ziurtatzea euskaldunon esku dago; gure esku dago mendetako galerarako joera itzuli eta euskarari, eta ondorioz Euskal Herriari, etorkizuna ziurtatuko dion eskenatoki demokratikoa eskuratzea.

Azken hamarkadetan, hiltzorian zegoen euskarari hauspoa eman eta neurri bateko berreskurapena (ez bere lurralde osoa ezta funtzio guztietan ere) lortu da euskalgintzaren, eragile batzuen eta herritarren ekimenez. Baina indarrean dauden marko juridiko-politikoaren arabera euskararen berreskurapen lanak berea eman du. Euskaltzaleon ekimenez, adierazleren bat edo beste hobeagotu dezakegu, euskara neurri mugatu batean zabaltzen jarraituko dugu (zalantzarik gabe egunez egun egin beharreko lana). Baina ez da nahikoa.

Euskararen aldeko lanean garai berria abiatu beharra dago. Euskalgintzak eta euskaltzaleek urteetan aldarrikatu duten aldaketa gauzatzeko tenorea iritsi da. Baina aldaketa hau ezin da edozein modukoa izan. Sektore erregionalistek aldaketa premia hori indarrean dauden menpeko hizkuntza politikak berritzeko baliatu nahi dute, herritarren gogoari eta euskararen beharrei muzin eginez.

Aldaketa horren muina izango den hizkuntza politika berriak gutxienezko oinarri argiak eta zehatzak izan behar ditu:

- Hizkuntza politika horrek euskararen berreskurapen osoa, hau da, bere normalizazioa lurralde osoan eta funtzio guztietan, izango du helburu. Beraz, **Euskal Herria euskalduna** izango du helburu.

- **Hizkuntza politika nazionala, burujabea eta bakarra** izango da.

- Euskara **Euskal Herriko hizkuntza nazional, berezkoa eta lehentasunezko** gisa onartuko du.

- **Euskara ezagutu beharreko hizkuntza** dela onartuko du.

- **Euskara eta euskal identitate eta kultura** bereiztezinak direla onartuko du.

- Euskal herritarrok ditugun hizkuntza eskubideak bermatzeko, **euskararen ofizialtasuna** onartzeko, eta, hizkuntza politikaren gauzapeña arautzeko **Euskararen Lege Berria** onartu behar da.

Helburu honekin, euskaltzaleok urteetako ahaleginean sakontzea eta biderkatzea ezinbestekoa dugu. Euskal Herria euskalduna helburu, normalizazio prozesuan jauzi berria eman beharra dugu. Ezker Abertzalea euskarak behar duen eskenatoki berria eraikitzen burubelarri inplikatu da, eremu guztietan eta ahalegin osoarekin.

